

Parte hartu erabakitzekeo

OOG-RAKO
HAUTSKUNDEAK
2018

Gomendioak
(IGEak)



1

IGE-AREN ORDEZKARIA IZENDATU ETA BETE GABE DAUDEN POSTUEN KOPURUA EZAGUTU

Guraso Elkarteek OOGrako pertsona bat izendatu dezakete zuzenean hauteskunde prozesu-rik pasatu gabe. Orain aurkeztu behar duzue. Ez baduzue egiten, IGEak galdu egingo du ordezkari-ritza OOGan.

IGEaren Zuzendaritza Batzordeak proposatuko du ordezkaria. IGEaren kide den edozein ama, aita edo tutore izan daiteke.

Horretaz gain, bete gabe dauden postuen kopurua ezagutu behar duzue. Zuzendar-riak esango dizue.

GARRANTZITSUA: ZUZENDARIARI AURKEZTU ZUEN ORDEZKARIAREN IZENA URRIAREN 17A BAINO LEHEN

2

HAUTAGAIK LORTU (KANPAINA)

Oso garrantzitsua da OOGan **bete gabe dauden postu** guztiak betetzea. Horretaz gain, **ordezkoak** behar ditugu, gurasoren batek ikastetxea uzten badu edo beste edozein arrazoiengatik OOGa uzten badu postu hori bete ahal izateko.

IGEak talde-hautagaitza aurkeztu dezake eta ikastetxeko edozein guraso bakarka aurkeztu daiteke. Ideia batzuk ematen dizkizuegu zuen ikastetxeko familiak animatzeko bozketan parte hartzen eta hautagai aurkezten:

- **INFORMAZIO-ORRI** bat, OOGan parte hartzeak duen garrantzia transmititzen lagunduko dizuena. Gurasoekin egiten diren **ikasturte hasierako bilere**tan banatzeko eskatu diezaiokezue zuzendariari.

- Kanpaina bat HASI zuen komunikazio-kanalen bidez: whatsapp, Facebook, Twitter, e-posta, kartelak, eta abar.

- Bilera edo mintzaldia ANTOLATU, hautagai izatearen garrantzia transmitituz. Hautagaiak lortzen dituzuenen, zuzendaritzari jakinarazi bozketen prozesuarekin jarraitu ahal izateko.

GARRANTZITSUA: URRIAREN 17TIK 26RA AURKEZTU BEHAR DIRA HAUTAGAITZAK

3

FAMILIEI JAKINARAZI AURKEZTU DITUZUEN HAUTAGAIK ETA BOZKETA-EGUNA PRESTATU.

Garrantzitsua da OOGrako hautagaiak lortzea, baita ikastetxeko familiek hautagaiak ezagutu eta euren ordezkariak aukeratzea ere bozketan-egunean. Horretarako, hauxe egin dezakezue:

- Hautagaien zerrenda ageriko leku batean IPINI argazki eta datuekin, adibidez: Amaia Lasa, HH2Ako ama.

- Zuen hautagaiak EZAGUTARAZI zuen komunikazio-kanalen bidez.

Garrantzitsua da zuzendaritzari LAGUNTZEA bozketan-egunari buruz informatuz: ordutegia, posta bidezko bozketan, eta abar.

Bidali dizuegun kartela IPINI bozketan-eguna eta ordutegia aipatuz.